

GUK ERE BADUGU HAMASETIK

DOINUA: IZARREN HAUTSA

MAILA: HELDUAK
EZIZENA: PALESTINA

1-Gerra bat ez da boxeo ring-a,
gerra bat ez da esgrima
guda zelai bat ez den bezala
bakezaleen tarima
bonba hots baten lehen kriskitina
txikituz erdigune ta izkina
dena lokatz ta buztina
telebistaren bestalde nahiz ta
sentitzen dugun lastima
kontzientzian soilik eragin
ohi du uneko kilima
izan ta izen baten arima
justuziara nola arrima
Israelen plastilina
horixe da Palestina.

2-Judutar ultra kontserbadore
kolonoen abaraxka
ez da eztizko gotorleku bat
baizik ta biktimen bazka
zenbait mezkitei su ematea
ta malko sortzaile den gas kea
da botere arrakasta
Ramadanaren ospakizun bat
bonbardatzearen kasta
ospatzen dute aldarrikatuz
Palestinakiko nazka
bertako indar polizialei
tirokatzeko egin zaie dei
bi lur, bi gorroto aska
amaitzen ez den gatazka.

3-Boterearen azal-mamitan
negoiazio izkutuz
gau eta egun jardun ondoren
leku publikoak sutuz
adostu dute lehen menia
bazen garaia, bazen premia
hasteko minak laburtuz
Tel Avivek sei presoren truke
Israelek bat agurtuz
krimen lazgarri bat ezin baita
eten herri bat izutuz
nahiz pake gosez hasi urtea
zein gogorra den preso trukea
giza-izatea lapurtuz
ta merkantzia bihurtuz.

4-Behin garbiketa etniko batek
zabaltzen badu atlasa
mapa bateko diana dira
lur jabetza ta arraza
populazio handienaren
jabe omen den Palestinaren
kontra zenbat amenaza
askagaitz diren korapiloez
osatutako mataza
hori da krisi humanitario
batek duen anabasa
zeru azpiko kartzela_ iriki
batean preso daude bortizki
genozidioen plaza
bilakatu dute Gaza.

5-Nola babestu ta nola zaindu herri baten esentzia armen bitartez azaltzen bada talde baten potentzia? Eraitsitako etxeen gainean gune militar bat ekinean sortuz indiferentzia bertakoek galtzen dute egoiliar izateko lizentzia eskubideen urraketak du uneoro presentzia euren sustraien aldarrikapen dira nortasun eta kokapen zineraren herentzia da giza erresistentzia.

6-Esteroidedun inperialismo baten lehenengo atea zabaldu berri du Donald Trumpek ta hor dago debatea legez kanpoko erokeria ezmoral latz bat da alegia bere autoritatea norbere lur ta jaioterritik kanpora eramatea ta deserrira kondenatzea da bere borondatea Trumpek eskura ditu oraintsu estatu handi eta indartsu denen konplizitatea eta inpunitatea.

7-Nazioarteko zuzenbideen sistema da arazoa egin dezagun dena zapuztu dutenen errebasoa lehen lerroan dago Europa pakebiderik ez dio opa baizik soilik frakasoia ta Australia ez al da Estatu Batuak-en pailazoa lehenik lurretik, gero airetik egiten zen erasoia mugak hautsi ta dena da libre edozein bide da gerra bide ta lurra bezain lausoia bihurtu da itsasoia.

8-Nork jartzen die atxilotu ta bahitu denei neurria? Berdina al da giza bizitza denek duten salneurria? Ehun palestinar askatu ahala Israelek bat jaso dezala hau ez da truke derbia kontzentrazio esparruetan basa dator gauerdia elikagai ta osasun zaintzen gabezia ez da berria euren herritik desplazatuak dira aldiro ta bezatuak ta herri baten hilerria bihurtzen da deserria.

9-Jerusalen ta Cisjordania
ta Israelen ze nahas-mahas
Hamasek burujabetzan nahi du
izan kapaz ta kapataz
abertzalea ta yihadista
estatu libre ta islamista
lurraren jabea, beraz
guk ere gure hizkuntzan egin
nahi genuke beti solas
bihurtu gabe bi estaturen
txotxongilo eta jolas
lurrak ematen digu garena
euskaraz gara gu garen dena
gure muga, gure arnas
gu ere bagara Hamas.